



Xabier Alzola\*

## 2006 ARABAKO ESPEDIZIOA GI eta GII mendietara

RESUMEN

**P**ARECE mentira cómo pasa el tiempo, pero ya se han ido 12 años desde que conocí a Josu Alcaraz un día de año nuevo en el refugio de Linza. Yo había regresado de pasar el año viejo en Piris entre la nieve y Josu preparaba la expedición al Shisha Pangma. Fue mi primer contacto o acercamiento con algo que sonaba a 8000. Después de aquello surgió la amistad y vinieron las ganas de ir juntos a alguna expedición, pero hace tres años fue el McKinley con Josu Alcaraz y, aunque el proyecto de los Gasherbrum venía de hace tiempo, ha ido pasando el tiempo y hasta este año no hemos tenido oportunidad de irnos al GI/II.

A este proyecto se ha unido además Alberto Zerain, gran amigo y a la vez un tremendo escalador. En la primera etapa de la expedición también hemos contado con Nano Galilea, que sin ser un alpinista de grandes alturas, tenía muchas ganas de llegar al campo base de los Gasherbrum y contemplar esas montañas que te encuentras durante el trekking del Baltoro: Torre del Trango, Torre sin nombre, K2, Broad Peak, GI/II/III..., Chogolisa, Masherbrum...

No pudieron venir, otros como Patxi Ibarbia del refugio de Gabardito. Este año el trabajo en el refugio no le dejó marchar a tierras lejanas -Karakorum- pero conocidas, ya que tiene la primera ascensión vasca al Broad-Peak.

Siento como si nunca hubiese estado allí. Todo me parece un sueño del que -eso sí- conservo muy buenos recuerdos. Éramos un grupo poco conocido, pero a trancas y barrancas, hemos podido organizar todo lo que supone una movida de éstas. La venta de camisetas y la ayuda de algunos patrocinadores han hecho posible esta historia. Mila esker zuen laguntzagatik!!


\* Xabier Alzola es vicepresidente en funciones del Goiena Mendi Taldea. Le gusta participar en carreras por asfalto y montaña, así como practicar el esquí de travesía. Ha participado en expediciones al Aconcagua, McKinley y Gasherbrum I y II.

### ■ PROIEKTUA ABIAN JARRI

2005eko ekainean, Josu eta biok Gabarditoko aterpera joan ginen asteburu pasa. Patxiri azaldu nahi genion nora eta GI eta GIIra joan nahi genuela. Lagun arteko bileratxo bat egin genuen asmo horren nondik-norakoez jarduteko; Arabar Errioxako erreserbako ardoa izan genuen lagun. Ezin zitekeen bestela izan. Berriketaldi hark hasiera eman zion Pakistango Karakorum mendilerroko bi zortzimilako kateatzeko ekimenari.



Gasherbrum I ó Hidden Peak  
(8068 m)



Gasherbrum-La ó CII  
(6500 m)

■ *Vía de ascenso al GI*



Ekainaren 24a. Proiektua abian jarri eta urtebetera Islama-bad-era eramango gintuen hegazkina hartu genuen. Egun hartan, bidaiaren prestakuntza-lanek eragindako urduritasu-nagatik-edo lo geratu nintzen. Horrelaxe hasi zen dena. Nano zain neukan neure etxepean, eta ni artean lo. Di-da altxatu eta zitzu bizian joan ginen Loiura hegazkina hartzera, oso berandu genbiltzan eta. Loiura iritsita, Albertorekin elkartu ginen. Berarekin zegoen espedizioa eta GII mendira igotzeko baimena gurekin partekatzen zuen beste taldea: Aitor las Hayas, Kandido Aizpurua, Aitziber Ibarbia eta Iñaki Urkola.

Abiatu eta berehala, bigarren ezustekoa: ordurako 30 bidoi sartuak genituen hegazkinean, baina bidaiaren ekipajea kontuan izanik, behar baino pisu gehiago generaman, eta to! 2000 euro gehiago ordaintzea egokitu zitzaigun eta gainera, berriro ere arrapaladan ibili behar hegazkina hartzeko. Bidaiari guztiak gure zain eta gu estu eta larri lasterka aireportuan zehar...

■ **DENBORARIK GALDU GABE**

Behin Islamabadera iritsita, denborarik galdu gabe, Hotelean Nazir agentziako arduraduna eta Adi ezagutu genituen. Adi gure lotura-ofiziala zen, gurekin kanpamendu nagusiraino joango zena eta bueltan ere gurekin izango zena, Gondogoro-La-tik Skardu-raino. Pakistango Klub Alpinoko idazkariarekiko elkarrizketan ere ondoan izango genuen.

Aurkezpen guztiak egin ondoren, ekainaren 26an, lehenengo orduan, hegazkina hartu genuen Baltistango hiriburua den Skardu-ra joateko. Hegaldiaren iraupena 45 minutukoa izan zen. Ez dakit mendiko jainkoak alde izango geni-

■ *Corredor de los japoneses al GI*



■ Campo 3 del GII. Al fondo el Chogolisa y el GVI

tuen edo zer, baina argi dago ibilbide hori normalean autobusez egiten dela, Karakorum High Way-an zehar. 800 kilometro dira guztira eta bi egun iraun ohi du bidaiak. Bueltan handik etorri ginen. Guri eguraldiak lagundu zigun eta joateko hegazkina hartu ahal izan genuen.

Skardu-ra iritsita, egun bateko atsedena hartu genuen bidaien zain geunden bitartean, Karakorum High Way-an zehar zekartzaten eta. Hurrengo goizean, mendibilgailuz eraman gintuzten Askoleraino. Han eramaleen artean bidaiak "zozketatu" genituen. Beren artean borrokak-eta piztu ziren, guztiek eraman nahi baitzituzten bidaiak kanpamendu nagusiraino (5200 m).

Ekainaren 29an hasi ginen oinez. Handik aurrera bizkar-zorroa lagun izango genuen hurbiltze-ibilaldia bukatu bitartean. Zenbait herrixkatan eman genuen gauda: Chom-La, Paiu, Urdukas, Gore... Paiuko gauak dira gogoangarriak: animaliak akatzen zituzten kanpamendu nagusian haragia izateko eta eramaleen aurreneko *baltis* kantuak entzun genituen. Urdukas-en, Baltoroko glaziarrera iritsi baino lehenagoko azken belarri-zatian egin genuen lo, aurre-aurrean Katedralaren harriztarra eta zerumugan Trangoko orratzak genituela.

#### ■ IRITSI GINEN KANPAMENDU NAGUSIRA

Uztailaren 7an iritsi ginen kanpamendu nagusira, baina gutakoren bat ondoezik zegoen: Nanori hotzak sabela hartu

zion eta horren ondorioz, sukarra izan zuen. Ez zen batere ondo sentitzen gizagaixoa. Kanpamendu nagusian ohartu ginen overbooking-a zegoela. Ia ez zegoen lekurik guretzat, gurea baitzen Gasherbrum-era iritsi ziren azken espedizioetako bat. Aklimatazio arin baten ondoren, uztailaren 11n 3. kanpamendua ezarri genuen, 7000 metrotara. Hori eginda, kanpamendu nagusira jaitsi ginen. Han atsedena hartuko genuen, gailurrera igotzeko aukera sortu bitartean.

Jaitsi bezain laster, beste ezusteko bat: ohar baten bidez jakin genuen Nanok istripu bat izan zuela eta helikopteroz eraman behar izan zutela Skardu-ra. A ze sustoa! Horixe genuen aurreneko baja. Egun batzuk geroago, jadanik Gasteizen, hitz egin ahal izan nuen Nanorekin, eta esan zidanez, susto txiki bat besterik ez zen izan.

Handik aurrera afariak eta bazkariak izan genituen txitean-pitean beste espedizio batzuetako jendearekin. Bost egunez aritu zuen elurra mara-mara, etengabe. Ondorioz, egunero "elurbakiak" egin behar izaten genituen kanpadendatik ateratzeko.

Azkenean, hilaren 16an hurrengo egunean eguraldi ona izango genuela zioen eguraldi-iragarpenera bat helarazi ziguten. Hori ikusita, dena berriro prestatzeari ekin genion, goiko kanpamenduetara berriro igotzen joateko. Goiko kanpamenduetara iristen ari ginela ohartu ginen dena hankaz gora zegoela: kanpadendak batzuk hautsita, beste batzuk desagertuta eta laugarren kanpamendua suntsiturik. Ez zen ezertxo ere salbo geratzen han.

Esku artean genuen eguraldi-iragarpenera ez zen gertatu uste genuen bezain ona eta bi egun eman genituen zain lehenengo kanpamenduan (6000 m) eta hiru gau bigarren kanpamenduan (6500 m).

Azkenean, hilaren 21ean, egunsentiak eguraldi ona ekarriko zigula ematen zuen. Hori ikusita, Albertok hirugarren kanpamendura (7000 m) igotzea erabaki zuen, hurrengo egunean gailurra zapaltzeko asmoz. Nik pentsatu nuen hobe nuela hurrengo egunera arte itxarotea hirugarren kanpamendura igotzeko, gauaren babesa oso lagungarri gertatuko zitzaidalakoan. Azkenean, Albertok eta biok lortu

genuen hurrenez hurren gailurra mendean hartzea uztailaren 22 eta 23an.

Behin kanpamendu nagusira jaitsi ondoren, eta indarberritzeko oso denbora gutxi hartuta, Albertok eta biok prestatu genituen azken aldiz bizkar-zorroak. GI edo Hidden Peak mendirantz joko genuen oraingoan. Horrela gauzatu ahal izango genuen bi gailurrak kateatzeko asmo hura. Bestalde, Josuk ez zuen zortetik izan GII mendian. Hiru aldiz saiatu zen, baina alferrik. Gorago ez joatea erabaki zuen eta, horrenbestez, ez zen gurekin etorriko GI-era. Kanpamendu nagusian izango genuen zain.

#### ■ AZKEN BI URTEOTAN

Jakinarazi zigutenez, azken bi urteotan inork ez zuen lortu GI mendira igotzea. Dirudienez, baten batek lortu du mendiko lepoan jarri ohi den bigarren kanpamenduraino iristea, Gasherbrum La alegia. Baina handik aurrera ezer ez, ez da inortxo ere ibili azken bi urteotan.

Behin leporaino edo bigarren kanpamenduraino iritsita, egun osoa eman genuen ura edaten eta jaten. Ahal izan genuen guztia jan genuen. Han geundela, lepo zabal hartan zehar osteratxo bat egin genuen eta Txinaren isurialdera hurbildu. Satelite bidezko telefonoan "Turaya Pakistan" jarri beharrean "Turaya China" agertzen zela ohartu ginen. "Japoniarren korridorea" ren azpian geunden eta luzaz eduki genituen begiak han iltzaturik. Geure buruaz fidatzen



dena uztea erabaki genuen: ura, sokak, arnesak... Satelite bidezko telefonoa eta bideo-kamera beste tresnarik ez genuen eraman gailurrerantz.

#### ■ ELURRA GERRIRAINO IRISTEN ZITZAIGUN

Inbutura bitarteko zeharkaldia bukatu, elurra berriro gogortzen zen eta aldapa gero eta pikoagoa zen. Ezin zen ganorazko atsedenik hartu leku malkartsu hartan. Bi aldiz igo ginen bi haitz-erlaitzetara, behar bezala eserita bi geldialditxo egiteko. Konoa atzean utzirik, erretanak eskuinerantz egiten zuen. Elurra orduan bigunagoa zen. Ondorioz, gero eta nekezago egiten zitzaigun aurrera egitea. Albertori esan nion 70 metro inguru egiten genituela orduko. Azken 300 metroak sekula bukatuko ez zirela ematen zuen. Elurra gerriraino iristen zitzaigun. Aldapak 50<sup>o</sup>-koak. Gorputza eze-gonkor. Soina barrurantz sartuz, ozta-ozta eusten genion orekari. Urrats bat aurrera eta beste bat atzera. Azken zatia zuzenean hartu genuen eta bi seraken artean zegoen ertz batera ateratu ginen. Indarrez justu-justu genbiltzan. Gorputz osoa dardarka nuen. Dena oso-oso goian zegoen. Beste aldean Txina eta amildegia ikaragarri bat. Bi aldiz pentsatu gabe, Albertok berriro bidetara ekin zion, 80 metrotan oin-aztarna berak egiten zuela. Gailurrera bidean beste serak bat utzi genuen atzean, Txinako isurialdean. Hantxe zegoen gailurra, gure eskura! Ez nekien nola, baina azkenean gailur-reen nintzen. Alberto hantxe ikusi nuen. Harengana joanda gogotik besarkatu nuen. Ez nuen askatu nahi. Han ez genuen soka finko bat bera ere ikusi, eta horrek gogora ekarri zigun gurea erdi bidean utzi genuela. Baina azkenean goian ginen, gailurrean!

Uztailaren 29an eta astebeteko tartean kateatu genituen GI eta GII mendiak. GI mendira igotzeko 13 ordu behar izan genituen. Bigarren kanpamenduaren eta gailurraren arteko 1600 metroko desnibela gaingitu genuen, "Japoniarren korridorean" gora joanda.

Bi egun haiek zoragarriak izan ziren. Gu biok bakarrik mendian, eta gure erara igo ginen GI mendira, alegia, estilo arin eta segurua erabiliz. Poza izugarria izan zen. Albertoren bostgarren zortzimilakoa da. Ni berria naiz honetan: nire lehenengo bi zortzimilakoak dira oraingo bi hauek. □

■ Descenso de la arista cimera del GII



■ Alberto Zerain en la cima del GI

ginen, indartsu sentitzen ginen. GIIk altuerara egokitzeo lagundu zigun, eta erabaki genuen bertatik, alegia bigarren kanpamendutik ekitea GI mendiari. Ez genuen ez hirugarren, ez laugarren kanpamendurik eratuko.

Gauerdiko 12etan altxatu ginen eta gosari-legea egin ondoren (La Brasileña kafearekin, alajaina!), "Japoniarren korridorera" jo genuen. Hamar minutu geroago ekin genion bidetara. Kranpoie txinpartak zerizkiela lotu gintzaizkion eskaladari. Ordubete geroago zerbaiten hotsa entzun nuen amildegian behera erortzen ari zela. Harriren bat ote? Laster Alberto ohartu zen kranpoi bat falta zuela. Ez zen, beraz, harri bat izan, kranpoia baizik. Beherantz eginda, agian kranpoia aurkituko genuela esan nion, baina berak "gorantz" erantzun zidan irmoki. Ezin genuen denborarik galdu, hasita zegoen-eta atzetik aurrerako zenbaketa. Gainera, itxura guztien arabera, egun hura luzea izango zen oso.

Egunsentiak "Japoniarren korridorearen" azken zatian harrapatu gintuen. Ur-zurrutada luze bat hartu eta 300 metroko pala aldapatsu bati ekin genion. Gero, elur biguna nagusi zuen zeharkaldi bat egin genuen eta beste isurialde-dera pasa. Inbutu itxurako erreten bat ageri zen behealdean, eta pixka bat gorago gailurra. Orduantxe argiago ikusi genuen eguna oso luzea izango zela. Hori dela eta, han

**Espediziokideak:** Josu Alcaraz, Nano Galilea, Alberto Zerain eta Xabier Alzola.

**Iraupena:** ekainaren 24tik abuztuaren 9ra bitartean  
**Más información:** [www.arabakoexpedizioa.com](http://www.arabakoexpedizioa.com)  
[gasherbrum@arabakoexpedizioa.com](mailto:gasherbrum@arabakoexpedizioa.com)

■ Cima del GII, Xabier Alzola, Jordi Marmolejo y Tato



EGILEAREN ARGAZKIAK